

Zarautz

XXIII. Nekazaritza Ekologikoaren Azoka eta baserrira bisitaldia



Azoka. Joan den urtean euria izan zuten bisitariak baina badirudi aurten eguzkiaren txanda dela. / AMAXKAR

Bihar goizean Lege Zaharren enparantzan eta Zigordia kalean egingo da azoka, eta bisitaldia igande honetan

JUAN MARI ZUBIAURRE ZARAUTZ.

Jueves, 22 agosto 2019, 08:44



Biolur elkarteak, Urkomek, ENEEek Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak eta Zarauzko Udalak antolatuta, bihar eta igandean ospatuko dira Urola Kostako Jardunaldi Ekologikoak.

Ekimen honen bitartez produktu ekologikoak eskuratu eta haien ekoizleak ezagutzeko aukera ezinhobea izango da Zarautzen asteburu honetan. Hala, bihar, XXIII. Produktu Ekologikoen Azoka berezia

izango da goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara Lege Zaharren enparantzan eta Zigordia kalean. Denetariko produktu ekologikoak, garaian garaikoak eta bertatik bertara eskainiko dira Eko Azoka honetan.

Ekoizleek produktuak salgai

Euskal Herriko ekoizleek, barazkiak, fruta, ogia, gazta, sagardoa, gozoak eta beste hainbat produktu jarriko dituzte salgai, denak modu ekologikoan ekoitziak. Jolasak, erakusketa, informazio postuak, atsedeen gunea, musika eta jai giroa, zozketak... denetarik topatuko dute bertaratzen direnek.

Jardunaldi ekologiko hauen baitan ekimen gehiago izango dira. Honela, igande honetan, Zestoako Irune Txiki baserrira bisita eskainiko da. Nahi duen orok Ekain sagardo ekologikoa nola egiten den ezagutzeko aukera paregabea izango du. Bisitaldia erabat dohain izango da eta bertaratzeko telefono dei bat besterik ez da egin behar, 943 76 14 47 (Biolor) telefono zenbakira deituz. Jardunaldi hauetan parte-hartzen dutenek ekoizpen ekologikoan produktu horiek guztiak ongari eta pestizida kimiko, gehigarri, eta orokorrean sintesiko produktu kimiko gabe ekoiztuak direla ikusiko dute, ingurugiroa eta elikagaiak kutsatu gabe, alegia. Izan ere, baserritar horien erronkak baliabide naturalak zentzuz erabiltzea, lurraren emankortasuna zaintzea eta ekosistemen orekak eta biodibertsitatea errespetatzea dira.

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters


Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Zarautz

[Top 50](#)

- 1 La Feria Medieval llegará a Zarautz el puente de diciembre
 - 2 'Bertakoak', iniciativa para conocer la gastronomía de diferentes culturas
 - 3 Bilera irekia herriko gorrak eta entzumen urria dutenentzat
 - 4 Zarauzko 34 establezimendu, euskaraz lan egiteko eta bizitzeko aukerak sortzen
 - 5 KUP taldea abrirá esta noche el programa del Ciclo Musical de Verano
- 0 Comentarios 

Noticias relacionadas

Punto sobre la bocina ante el Teucro



Zast Ulacia taldeak sendo jarraitzen du EBA Ligako ibilbidea

EL DIARIO VASCO

Konpromisoa emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzeko



Patrocinada

HONDA

Honda HR-V: Un SUV compacto, elegante y deportivo



CONTENIDO PATROCINADO

Enlaces Patrocinados por Taboola

Es desgarrador donde vive Antonio banderas a los 59 anos

Locksmith of Hearts

¿La recuerdas? Te vas a impresionar cuando la veas ahora

Cars&Yachts

Hernani: Gente con 5-49 vehículos ha descubierto este sistema

Expert Market

MÁS NOTICIAS

por Taboola

«Hay un gran riesgo para los niños», se quejan los padres de los alumnos del Summa Aldapeta

Encuentro en Goienetxe 46 años después

¿Qué leer? Analizamos algunos de los títulos disponibles

Fotos



Un millar de personas se manifiesta en Donostia

El desembarco del 'Aita Mari' en Sicilia



'Parte Vieja y puerto de San Sebastián: conjunto monumental'

La Real Sociedad prepara el derbi ante el Eibar

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018



[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)